

8/2018 IDAZKARI NAGUSIAREN TXOSTENA

Gaia: Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkotzea onartzea

JURDANA URIARTE LEJARRAGAK, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.7. artikulua araberaren arabera egin dut hurrengo

TXOSTENA

Aurrekariak

Lehena.- 2018ko maiatzaren 4an langileria saileko teknikariaren erabaki proposamenean, Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkotzeko beharrezana justifikatu da eta araudiaren zirriborroa erantsi da.

Oinarri juridikoak

1. Aplikagarria den araudia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundearen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundearen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

- Ekainaren 28ko 15/2012 Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko Legea

- Maiatzaren 5eko 57/2015 tokiko polizia-koordinaziorako Batzordearen osakerari eta funtzionamendu-erregimenari buruzko Dekretua



- Maiatzaren 5eko 58/2015 Euskadiko udaltzaingoen antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen Dekretua

- 2012ko irailaren 24ko eta azaroaren 13ko Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren aginduak.

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizaziorako.

Kasu zehatz honetan, martxoaren 13ko 2/1986 Segurtasun Indar eta Kidegoen Lege Organikoak ere aitortzen du udalen eskumena udaltzaingoen araudiak onartzeko. Baina udalaz gainera Lege organikoaren arabera, autonomia erkidegoek eskumena dute araudiak egiteko, bai udaltzaingoak koordinatzeko, eta bai esparru-arauak egiteko udaltzaingoen araudiak egokitzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten. Beraz, egoki ikusten da Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkutzeko eta autonomia erkidegoak onartutako araudira egokitzeko Udaltzaingoaren araudiaren eraldaketa landu, izapidetu eta onartzea.

Araudiaren eraldaketa onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129.artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtadun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira araudia eraldatzearen eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun,



bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legéarean 49. eta 133. artikulua eta 7/1985 Legearen 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Saileko teknikari ardunadunak Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkotzeko beharrezana justifikatuko du.

Justifikazioa eginda dago.

b) Hala dagokionean, araudiaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

c) Hala dagokionean, araudiak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dienean, Udalak webguneari argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina osoko bilkurak 2018ko martxoaren 14an Bermeoko Udaleko araudi plana eta araudiak zein ordenantzak sortzeko prozeduran alde aurretiko kontsulta publikoa xedatzeko gidalerroak onartu zituen eta 8. Atalean hurrengoa onartu zen: "Entzunaldiak nahiz jendaurreko erakustaldiak egutegiko hamar egunez egingo



dira, udalaren webgunean txertatzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Epe hori amaitutakoan, ekimena proposatu duen erakundeak ordenantzaren edo araudiaren behin betiko testua idatziko du, eta Osoko Bilkuran aurkeztuko du onetsi dadin”.

Hala ere, praktikan (eta jurisprudentziak zalantza argitu arte) egoki ikusten da Osoko Bilkuraren kontsulta publiko eta entzunaldien gidalerroen inguruan hartutako akordioa eraldatzea eta entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti ere, herritarren eta elkarteen eskubideak erabat errespetatuta.

Ez dago argi eraldaketen kasuan 133.artikuluaren zehaztuatako kontsulta publikoa eta entzunaldia egitea beharrezkoa den. Hala ere, prudentzia eta segurtasun printzipioetan oinarrituta, komenigarri ikusten da, oro har, ordenantza edo araudiak eraldatzerakoan ere aurretiazko kontsulta egitea eta entzunaldia burutzea.

Hala ere, kasu zehatz honetan 133.4.artikuluaren salbuespena aplikagarria dela esan genezake. Artikuluak zera dio: *Artikulu honetan aurreikusitako kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin gabe utz daitezke toki administrazioaren edo haien mendeko edo haiei lotutako antolakundeen aurrekontuei edo **antolaketari buruzko arauetan** edo hala justifikatzen duten **interes publikoko arrazoi astunak** daudenean.*

*Arau-proposamenak jarduera ekonomikoan eragin nabarmenik ez daukanean, xede dituen hartzaileei betebeharrak handirik ezartzen ez dienean edo **gai baten alderdi partzialak arautzen dituenen, egin gabe utz daiteke artikulu honen lehenengo zenbakian araututako kontsulta publikoa.** Administrazio batek legegintza-ekimena edo erregelamenduak egiteko ahala baliatzea erregulatzen duen araudiak aurreikusten badu prozedura horiek presaz izapidetu behar direla, horregatik izapidea kenduz gero hartan dioenari jarraituko zaio.*

Kasu zehatz honetan araudiaren gaurkotzearekin udaltzaingoaren barne araudian azaltzen den antolaketa aldatzen da, gaur egun indarrean dagoen ordenamendu juridikora egokitzeko. Izan ere, hiru dira aldaketa nagusiak:

- Udaltzaingoaren eskalak eta kategoriak, 58/2015 dekretura egokitzeko.



- Udaltzaingoeen uniforme eta kanpoko ikur bereizgarriak, 2012ko irailaren 24ko Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren agindura egokitzeko.

- Akreditazio profesionalaren dokumentazioaren diseinu eta oinarrizko ezaugarriak, 2012ko azaroaren 13ko Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren agindura egokitzeko.

d) Saileko teknikari ardukadunak Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkotzea onartzeko erabaki proposamena egingo du.

Erabaki proposamena egin da eta edukiari dagokionez zuzena da.

e) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Langileria teknikariaren arabera, kasu honetan Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia aldatzeak ez du gastu edo sarrera gehigarririk suposatuko, beraz, ez da beharrezkoa kontuhartzailearen txostena.

f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorritz.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, edikuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebaztea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudiaren eraldaketa automatikoki behin



betikoz onartuta egongo dela, baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

k) Erabakia eta Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudian eraldatutakoa argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua erabera.

Ondorioak

Momentu honetara arte jarraitutako prozedura zuzena da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa eta efizientzia printzipioak errespetatu baitira; beraz, Bermeoko Udaltzaingoaren Barne araudia gaurkotzeko proiektuari aldeko txostena egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2018ko maiatzaren 14an

Idazkari nagusia,

Jurdana Uriarte Lejarraga



Jasota

Alkatea

Idurre Bideguren Gabantxo

